

## Laborantza ekologikoa eta label/marka ezberdinak

Sigiloa / labela	Deskribapen orokorra	Kideak – lurraldeak	Oharrak - Analisisak
	<p>1936an sortua, Biodinamia mugimenduaren inguruan (Steiner).</p> <p>Araudiak segurtatzen du etxaldea biodinamian ari dela. Ekologikoa zertifikatua izan behar da (gutienik 5 urte). Horen gain araudi zehatz batek urrunago definitzen ditu onartuak edo beharrezkoak diren praktikak.</p> <p>Demeter France alkatuek kanpoko kontrolak antolatzen ditu. Bio zertifikatzailekin harreman hurbila dute.</p> <p><a href="http://www.demeter.fr/professionnels/cahiers-des-charges/">http://www.demeter.fr/professionnels/cahiers-des-charges/</a></p>	<p>Munduko 60 herrietan hedatua.</p> <p>Frantzian : 700 etxalde demeter zertifikatuak.</p> <p>Horietan mahastizain ainitz.</p>	<p>Biodinamikaren erreferentzia.</p> <p>Marka bat, oso antolatua. Fama ona, bereziki mahasti munduan eta bio saltegietan.</p> <p>Gutti ezagutua halere publiko orokorraren aldetik.</p>
	<p>Marka kolektibo bat, ekoizpen etiketetan idazten dena. 1964an sortua, agroekologian engaiatua. Bere araudi propioa du, zigilo ekologikotik aparte.</p> <p>Zertifikazioa « parte hartze » moduan emana da : kideek beraien artean bisitak egiten dituzte, posible bada bikoteka : laborari bat, kontsumitzaile bat.</p> <p>Zigilo ekologikoari buruz, urrunago badoa, bereziki hazkuntza, eraldaketan,... 15 araudi, produktuka.</p> <p>Antolaketaren aldetik EHKOLEktibokoarenari hurbiltzen da.</p>	<p>Frantzian ari lanean, lurraldeka antolatua. 350 kide.</p> <p>Saltegi bio « zaharrak » onartzen dituzte « Nature et Progrès » produktuak, zigilo ekologikoa ez ukanik ere.</p>	<p>Fama ona. Araudia erreferente da beste mugimenduentzat.</p> <p>Egungo zailtasuna = kide guti, lurralde handi batean hedatuak. « Bio » labelaren indar ekonomikoak itotzen du « nature&amp;progrès»ko garapena (zori txarrez...).</p>
	<p>Frantziako label ekologikoa 2009a arte.</p> <p>Gaur egun AB zigiloa = europako zigiloa. Etiketan gehitzen ahal da europako zigiloaren aldean (hau baitezpadakoa da). Ainitzek ezartzen dute, kontsumitzailek ongi ezagutzen baitute AB logoa. Laborantzako Ministeria da logo honen jabe. Kanpoko zertifikazioa, ofiziala.</p>	<p>Gaur egun : 36.000 etxalde ekologikoak Frantzia mailan, 6.000 Akitania Berrian, 300 Iparraldean.</p>	<p>Europako bio labela.</p> <p>Garapen handia azken urteetan (+15%/urte).</p> <p>2 galdera edo eztabaida : 2009an, AB logoako araudia aldatu da, europako araudia bilakatuz, baina kontsumitzailek hortaz oso informazio guti jaso dituzte.</p> <p>Ene ikuspegitik kasik « gezur » bat izan da, « marketing »ak galdegin duena. Hazkuntzan bereziki, araudia ahuldu da.</p> <p>Hortako dugu ere « EHKO » identifikazioa sortu izan nahi !</p>



Sigiloa / labela	Describapen orokorra	Kideak – lurraldeak	Oharrak - Analisisak
	<p>2009an sortua. Europako zigiloa plantatua izan delarik, laborari eta kontsumitzaile elkarte aintzek ez ziren ados araudi berri ahulago honekin, bereziki Frantzian AB logoan zena.</p> <p>Biocohérence marka kolektibo bat da. Zigilo ekologikoari lotua : kontrolak bio zertifikazioarekin ber momentuan eginak dira (Frantzian, enpresa pribatuek dute zertifikazioa egiten : Ecocert, Bureauveritas, Certipaq, Agrocet,...).</p> <p>Hitzarmen komertzial bat bada Biocohérence elkartearekin. Kontrola zorrotzagoa egiten dute (prezioa : 120 euro/urteka, laborariak edo enpresak ordaintzen duena).</p>	<p>Sortzaileak izan diren sareak : FNAB (frantziako bio laborarien « sindikata »), Biocoop saltegiak, Bioconsommation (kontsumitzaileak), Biobreizh, Biobourgoigne, Euskal Herriko kolektiboa (bai, gu...)...</p> <p>300 kide gutti gora behera, ez dut azken zenbakia atzeman.</p>	<p>Izenak dioen bezala : label koherenteago bat, etxaldeko praktikei eta nahiei hobekiago lotua.</p> <p>Zailtasun handiak kide gehiagoren egiteko : kontsumitzailek zigilo ekologikoa baizik ezagutzen dute, fama ona du (zergatik zerbait gehitu?).</p> <p>Biocohérence elkartean sartuak dira ere saltegiak, bereziki Biocoop : nahasmendua ekartzen du, azkenean zer da Biocohérence : marka kolektibo bat, saltegi baten azpi-marka bat ?</p>
	<p>Euskal herri osoko « bio » elkarteek gogoeta bat abiatu zuten 2008an, Europako bio araudia aldatzen ari zelarik.</p> <p>Nekazaritza ekologikoa, tokikoa, solidarioa, soziala identifikatzeko tresna baten beharra agertu zen, gure esku zena. 2014ean EHKO kolektiboa elkarte ofizialki sortu da. Helburuak EHko laborarien arteko trukaketen garatzea, agroekologiaren bidea lantzea taldeetan, eta gure bio tokikoa definitzea eta identifikatzea dira : EHKO logoa helburu honekin sortu da. Etxaldea identifikatzen du, konpromiso agiri bat kideak betetzen du. Sigiloa ez da etiketetan agertzen.</p>	<p>Iparralde – Euskadi eta Nafarroa.</p> <p>Produkzio ezberdineko 80 etxalde gaur egun EHKO identifikazioarekin, kopuru honen garatzea helburu.</p> <p>Lurralde guzitik, gehienak Iparralde eta Gipuzkoan.</p>	<p>Elkartea urratsez urrats garatzen da.</p> <p>Egungo galderak hauek dira : - zer maila arte « agroekologia » ordezkatu ? - nola ongi lan egin elkarte bio eta Kontseiluekin ? - nola EHKO logoa hobekiago ezagutarazi ?</p>